



## Hezkuntza proiektu interkulturala

Gipuzkoako SOS Arrazakeria



# #AURKIBIDEA

---

1. Nola komunikatzen gara?
2. Konpetentziak
3. Helburuak
4. Metodologia
5. Beharrezko materiala
6. Hartzailak
7. Komunikabideen inguruko galdera gakoak
8. Dinamikak
  - 8.1. Izotzaldia hautsiz
  - 8.2. Materian sartzen: estereotipoak eta aurreiritziak
  - 8.3. Komunikabideak
    - 8.3.1. Irudiak
    - 8.3.2. Albistegiak
    - 8.3.3. Telesailak
    - 8.3.4. Publizitatea
    - 8.3.5. Bideoklipak
    - 8.3.6. Youtube
9. Eta nik, zer egin dezaket? Animatu!
10. Gehigarriak

# #NOLA KOMUNIKATZEN GARA?\_

**#komunikatu\_On** zurrumuruak, estereotipoak eta aurreiritziak zalantzan jartzen dituen kultur aniztasuneko hezkuntza proiektua da. Ikasgelan ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditugu pentsamendu kritikoa landu eta garatzeko.

Gogoeta eragin, kultu-aniztasuna, generoa eta berdintasuna txertatu elkarrizketan, inguratzen gaituen askotariko aniztasunaren inguruko sentibilizazioa landu eta gizarte eraldaketarako parte-hartzera animatu nahi ditugu gazteak.

Guri interesatzen zaigun alorrean, hau da, arrazakeriaren, xenofobiaren eta matxismoaren eta gorrotoaren diskurtsoaren kontrako borrokan, aldaketarako aukera da entzule pasiboak

izatera mugatu ordez, **erantzun eta informazio ezberdinarekin erantzun, aurka egin eta ezaguera berri bat sortu eta eraiki dezagun.**

Honengatik, gizarte honetan eragina izaterakoan, **ikus-entzunezko hezkuntzan** sinesten dugu; ez soilik azterketa kritikoa eginaz, baizik eta gizartea tresna aldizkakoez dohatu, **rol aktiboa izatera bultzatuz, elkarrizketa sustatuz eta aldaketa soziala indartuz.**

Begirada honetan genero ikuspegia ere lantzen da zeharkako prozesuan; hau da, lan bakoitzean eta eguneroko ekintza bakoitzean ohartu behar gara eta onartu behar dugu genero ikuspegiko bazterketak beste diskriminazioekin nahasten direla: sexua, jatorri etnikoa, erlijioa, iritzia, adina, ezgaitasuna, sexu orientazioa edota edozein egoera pertsonal edo soziala. Helburua genero desberdintasunak eraldatzea da, emakumeak ikustaraziz eta ahaldunduz.



Guzti honetarako dinamika ezberdinez osaturiko gida sortu da, pentsamendu kritikoa lantzeko komunikabideak aztertuz (Irudiak, albistegiak, telesailak, publizitateak, bideoklipak eta Youtube).

Gidaren hasieran zurrumuruak, aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko dinamikak aurkitu daitezke. Ondoren komunikabideetan aurkitu daitezkeen praktika egokiak eta ez egokiak aztertzen dira. Hain zuzen irudietan, albisteetan, telesailetan, publizitate munduan, bideoklipetan eta Youtubeko plataforman.

Honen jarraian parte hartzaileak aldaketa sozialerako agente aktibo izatera bultzatzen da ikus-entzunezko material aldizkakoa sortuz.

ON

ON

# #KONPETENTZIAK

---

## **1- Hizkuntzarako eta literaturarako komunikaziorako konpetentzia.**

Hitzeko eta idatziko testuak egokiro erabiltzea euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz. Literatura-hezkuntza garatzea ere bai, nor bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

## **2- Gizarterako eta heritertasunerako konpetentzia.**

Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.

## **3- Ikasten ikasi konpetentzia**

Gaitasun eta gabezia pertsonalak ezagutzea, lehengoei etekina ateraz eta motibazioa eta borondatea lortzea bigarrenak gaindituz. Galderak planteatzeko kuriositatea, egoera edo arazo erreal batetik abiatuta erantzun posibleak identifikatu eta kudeatzea, eta estrategia eta metodologia ezberdinak erabiliz erabakiak hartzeko gaitasuna garatzea, modu arrazional eta kritiko batez.

Informazioa lortzeko abilezia lantzea ezaguera propio bilakatuz, aurretiko informazioetara gehitzeko.

## **4- Informazioa eta konpetentzia digitaleko konpetentzia**

Informaziorako teknologiak erabiltzea jakituria zabaltzeko. Informazioa kudeatu eta prozesatzea errealitateko arazoak konpontzeko; erabakiak hartzea modu arduratsu batez, inguruko komunitateekin harremanetan, eta produkzio arduratsuak eta sortzaileak egitea.

Eskura dagoen informazioa banaka eta taldean modu kritikoz aztertzea.

## **5- Konpetentzia emozionala**

Auto-kontzientzia emozionala (badakit zer sentitzen dudana): gure emozioak ezagutu eta sentitzen duguna identifikatzea. Norbera meneratze emozionala (sentitzen dudana kudeatzea): gure bultzadak kontrolatzea eta erantzuna ematea egoera konplexuei. Auto motibazioa (nire ongizatea eta helburuak lortzea): norberak helburuak ezartzea, hauekiko ilusionatzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eta energiak kudeatzea. Enpatia (besteekiko sentitzen dudana): kontziente izatea besteekiko sentimenduez, beharrez eta ardurez. Gaitasun sozialak: eragitea, komunikatzeko, elkar aritzeko, gatazken ebazpenerako eta taldean jarduteko gaitasuna izatea.

# #HELURUAK

---

- Errealitatea distorsionatzen duten mekanismo kognitiboen inguruko funtzionamenduaren gogoeta egitea.
- Estereotipoen, aurreiritzien eta dibertsitate kulturalaren eta genero ikuspegiaren zurrumurruen inguruan gogoeta egitea.
- Emozioak aurreiritziekin elkartzea. Estereotipo eta aurreiritziak jasaten duten pertsonekin enpatizatzea.
- Komunikabideetatik jasotako informazio modu kritikoz aztertzea kontuan izanik dibertsitate kulturalaren eta generoaren ikuspegia.
- Konpromisoa eta aldaketa soziala bultzatzea ikasleengan mezu alternatiboak eta errespetuzkoak eraikiz.

# #METODOLOGIA

---

Metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea proposatzen da eta honakoa sustatu nahi da:

- **Eztabaida parte-hartzaileak** → Partaideak agente aktibotzat tratatu, beraien errealitatetik eta bizitzako esperientzietatik abiatuz, beraien sineskerak, jarrerak eta ekintzak zalantzan jarri.
- **Pentsamendu kritikoa sustatzea** → Ikasleak gaitu pentsatzera gauzak ulertzeko, ikasleen artean jakituriak eta esperientziak partekatuz, eta hauen inguruan gogoeta eginaz.
- **Errespetua eta elkarrekintza positiboa** → Esker onaren garrantzia eta gelakideen estimazioa, hartu-emanean oinarritua eta elkarriketarako eta entzute aktiborako jarrera baikorra izatea.

# #BEHARREZKO MATERIALA

---

- Ordenagailua
- Proiektorea
- Internet

# #HARTZAILEAK

---

- DBH 3 eta 4-ko ikasleak.



# # GALDERA GAKOAK

---

Komunikabideei aurre egiten diogunean garrantzitsua da irakurketa kritikoa egitea eta mezua bere konplexutasunean eta izan ditzaken irakurketa guztiak izanda kontuan izatea.

Irudien kulturen gaude murgildurik. Komunikabideek zabaltzen dituzten irudiak gure egunerokoaren parte dira eta ondorioz, ikaskuntzaren parte dira. Irudi batean, ideiak eta kontzeptuez gain, baloreak, sentimenduak eta jarrerak transmititzen dira. Irudiek alde arrazional bat eta alde afektibo bat dute, eta honetaz gain, jarrerak iradoki, sentimenduak sortarazi eta imajinario bat baieztatu eta indartzen dute.

Telebistak zehazki emozioak jorratzen ditu, behar natural bati erantzuna emanaz. Emozioak eta arrazonamendua gatazkan sartzen direnean emozioak garaile izaten dira, alderdi arrazionala baztertuz. Emozioaren logika garaile da arrazonamenduaren logikaren gainetik. Guzti honengatik, hezkuntzan izandako esperientziarekin, garrantzitsua da ikasleak emozioen kontsumoan hezteak ez soilik arrazonamenduan, analisi kritikora gehituz emozioetatik abiatzen den metodologia, norberak bere gaitasunak gehituz, alderdi sentsorialetik eta emozionaletik abiatuz, gogoeta kritikoa sustatuz.

Gaur egungo munduan komunikazio gehienetan pantaila bat da medio. Honegatik beharrezkoa da konpetentzia mediatikoa lantzea.

Historian zehar irudiak Okzidentetik erabili izan dira hegoaldeko lurraldeak irudikatze eta imajinario sozial bat eraikitze. Irudi hauen azterketa egiteak estereotipo, aurreiritzi, jarrera xenofobo, arrazista eta sexista batzuen arrazoiak ulertzeko balio dezake.

Aurreko guztia kontuan izanik, jarraian azaltzen diren galdera gakoak Gida Didaktika honetako dinamika guztiak gidatu behar ditu.

## 1. Nork sortu du mezua? **NORK**

Mezu mediatikoak beti norbaitek sortzen ditu.

- Zein edo zeintzuk dira mezuaren egileak?

## 2. Zein da mezua? ZER DIO

Mezu mediatikoak ez dira ez naturalak ezta errealitateko ispilu. Eraikiak dira.

- Zer dio mezua?
- Mezu bera lantzen dutenean berdina edo ezberdina da? Zein berdintasun eta ezberdintasun aurkitzen dira?

## 3. Zein teknika erabiltzen dira nire atentzioa deitzeko? NOLA

Mezuak hizkuntza sortzaile batekin sortzen dira, zeinak arau propioak dituzten.

Mezua argitzeko gure atentzioa zein modutara ari diren deitzen galdetu beharko gara.

- Testu-mezua.* Letra tamaina behatu; zer da gehien nabarmentzen dena eta nola (letra lodia, letra larria, argazki gehigarria)
- Irudi edo bideoa.* Behatu koloreak, formak, soinuak, posizioak.
- Pertsonaien ezaugarriak:* fisikoak, janzkera, elkarrizketa motak.
- Historia kontatzeko modua.* Zein elementuen bidez sinestarazten digute kontatzen ari diren kontakizuna? Konbentzitzen saiatzen dira? **Emozioren** bat sortarazi nahi digute (positiboa zein negatiboa)?

## 4. Zein bizitza estilo, balore eta ikuspuntu daude irudikatuak eta zeintzuk alde batera utziak? ZER IRUDIKATU DA

Komunikabideek eta hauen mezuek ikuspuntuak eta baloreak dituzte gehituak; ez dute errealitatea erakusten baizik eta irudikatu egiten dute.

Norbanakoak komunikatzen duenean bere mezua inplizituki pentsamoldea, sentimenduak eta sinesmenak batzen ditu; era berean, mezuek komunikabideen interesak irudikatzen dituzten, batzuetan ez modu nabarian.

Horregatik, premiazkoa da mezu batean dauden ikuspuntuak, baloreak, epaiketak eta ideiak identifikatzea.

- Zein balore edo ideia komunikatzen dira?
- Zein iritzi eta ikuspuntu daude?

- Zer falta da mezuan? Irizirik edo ikuspuntutik uzten al du kanpoan?

Modu honetara jakingo dugu mezua onartu edo baztertu nahi dugun. Gainera kontziente izango gara gure erabakia den edo manipulazioaren ondorioa den; pentsatuz "saltzen" digutena zer bait naturala eta eztabaidaezina dela.

#### **5. Zergatik bidali da mezu hau? ZEIN EFEKTU DU**

Komunikabideen mezu gehienak eraikiak izan dira irabazia edo boterea lortzeko.

Horregatik beharrezkoa da honakoa galdetzea:

- Zer ari dira mezuan esaten?
- Zerbaitez konbentzitzen saiatzen ari dira?
- Zer nahi dute ulertzea?
- Nork lortzen ditu irabaziak? (norbanakoak, instituzioak, interes pribatuak, hiritarrak ...)
- Nork kontrolatzen du produkzioa eta mezuaaren transmisioa?

#### **6. Nola ulertu dezakete pertsona ezberdinek mezu berbera modu ezberdin batez? NORI**

Pertsonok mezu berdina modu ezberdinez ulertzen dugu, gure balore, ideia, interes, adin, jakituria, sexu, maila sozial, edota hezkuntza mailaren arabera.

Ikerle batzuek dioten arabera, gure ideiak berretsiten dituzten mezuak kontsumitzen ditugu eta zalantzan jartzen dituzten mezuak baztertu egiten ditugu.

Paper zentrala dugu eduki mediatikoak interpretatzean eta ez kontsumitzaile soilak izaten.

- Besteak ikusten ez duena ikusten al dut?

# #K

## #DINAMIKAK

---

# O



# N


# # IZOTZALDIA HAUTSIZ

---

- **UKITZEN BAZAITUZTE ESAN IZEN BAT, IZENDATZEN BAZAITUZTE UKITU:** Zutik borobil batean jartzen gara. Borobileko pertsona bat hasten da eta borobilean dagoen pertsona baten izena esan behar du; izendatua izan denak bere eskuinean edo ezkerrean dagoenari ukitu behar dio (suabe). Honela, ukitua izan denak beste norbaiten izena esan beharko du. Honela, behin eta berriro. Gaizki egiten duenak edo erreakzionatzeko behar baina denbora gehiago behar izan badu, eliminatua izango da. Borobiletik irten beharko du eta borobilean jarraitzen dutenen atzean jarri ahalko da, ukitu gabe, baina molestatuz gauzak belarrira esanez distraitzeko helburuarekin.

- **ESKUA MARRAZTU:** Partaide bakoitzak bere eskua marraztuko du folio batean. Behin denek marraztua dutenean, hatz bakoitzean honakoa idatzi beharko dute:

- **Lodian:** nire izena
- **Erakuslean:** nire ezaugarri fisiko bat
- **Luzean:** afizioa, interesa edo kuriositatea
- **Nagian:** zer espero dut gaurko saioaz?
- **Txikian:** zer nago prest gaur emateko?



Denek bukatzean lurrean eseriko gara eta folioak erdian eta buruz behera utziko ditugu. Banaka joango gara orriak hartzen eta ozen irakurtzen. Honela elkar ezagutuko gara.

- **IZENA+ASPEKTU POSITIBOA+KAXA:** Gelakide bakoitzaren izena folio batean idatziko da eta orri guztiak kaxa edo poltsa batean sartuko dira. Ondoren, zoriz joango dira folioak hartzen gelakideak eta bertan azaltzen den izenaren inguruan aspektu edo ezaugarri positibo bat idatzi beharko dute. Behin denek idatzi dutenean, berriro kaxa edo poltsan sartuko dute orria.

Dinamizatzaileak banaka folioak hartzen joango da eta izena esatean, izendatuak bere ezaugarri edo aspektu positibo bat esango du; ondoren, orrian jartzen duena irakurriko da.

Ez gaude ohituak gutaz gauza positiboak esan eta entzutera. Oso garrantzitsua da taldekideen auto-estimua lantzea.

---

- **BILATU PERTSONA:** Ori bat banatzen zaio gelakide bakoitzari eta azaltzen zaie orrian azaltzen diren adierazleak bete beharko dituztela gelakideen izenekin. Ezin dira izenak errepikatu eta garailea adierazleak azkarren betetzen dituela izango da. Lehenengoak betetzen dituenean adierazle guztiak emango da amaitutzat dinamika.

#### **Bilatu pertsona bat ezaugarri hauekin ...**

- Atzerrira bidaiatu duena
- Zure esku tamaina duena
- Zure abeslari berdina gustatzen zaiona
- Euskal dantza dantzatzen dakiena
- Maitemindua dagoena
- Zu baina altuago saltatzen duena
- 4 hizkuntza dakizkiena
- Buruz gora lo egiten duena
- Beste herrialde batean jaio dena

# # MATERIAN SARTZEN: ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK

---

o **Garapena:** Banaka banaturiko orria (gehigarrietan ikusi) bete beharko dute ikasleek suertatzen zaizkien emozioak adieraziz. Argazkietan ageri diren pertsonen identitatea sortu dezakete. Ondoren partekatu egingo da gelakideen artean idatzi dutena. Gehigarrietako orrian ageri den argazki guztiak landuko dira, baina modu sakonago batez Tarana Karimen argazkia:



Sortarazi dizkieten sentimenduak azaldu ostean, bideo hau proiektatzea proposatzen da. Honetan, Tarana Karimek bere buruaz hitz egiten du eta bizi den tokian aurreiritziak nola bizitzen dituen azaltzen du.



**San Sebastian 2016 Capital Europea de la Cultura: (Tarana)**

<https://www.youtube.com/watch?v=tEWbKFt-k7A&amp;t=116s>

o **Laburpena:** Tarana Karim Azerbaijaneko emakumea da eta Gipuzkoan orain dela 15 urte bizi da. Musulmana da, langilea, feminista, 7 hizkuntza menderatzen ditu eta euskara barne, abokatua eta bi seme-alaben ama da.

### GOGOETARAKO GONBIDAPENA:

Zergatik uste dugu egin dugula dinamika hau?

Zeren inguruan egiten du gogoeta Taranak?

Zer da estereotipo bat? Eta aurreiritzi bat?

Aurreiritziek osagarri emozionala dute eta hauek ez dute arrazoia ezagutzen. Sarritan denok gara aurreiritzien biktima eta honek besteekiko enpatia izaten lagundu dezakete. Horrexegatik ikasleria gogoetara gonbidatzen dugu:

### HAS GAITEZEN!

1. Ikasleei honako galdera helaraziko zaie: **ZER ESATEN DA ZUETAZ, GAZTEETAZ?** Telebistan, kalean, komunikabideetan ... Honela beraien inguruan esaten diren zurrumuruak azaleratuko dira eta hauek sortzen dizkieten sentimenduak eta emozioak. Honen ildotik planteatu: *berdina esaten al da neskez eta mutilaz?*
2. Ondoren, elkarrizketa bi galdera hauen inguruan izango da:
  - a. Nola eragiten dizute honelako gauzak entzuten dituzuenean zuetaz?
  - b. Nola sentitzen zarete estereotipo horiek erreproduzitzen dituzuenean?
3. Aurreiritzien eta estereotipoen biktimak garenean ditugun sentimenduez eta horien erreproduktore garenean sentitzen dugunaz gogoeta egitea garrantzitsua da; modu honetara ulertu ahal izango dugu zergatik jokatzen dugun barneraturik ditugun ideien baitan.

Gazteei eragiten dieten aurreiritzi eta estereotipoez hitz egin ostean **persona etorkinen inguruko estereotipoak, aurreiritziak eta zurrumuruak landuko dira.**



**1. ZER ESATEN DA PERTSONA ETORKINETAZ?** Komunikabideetan, kalean, irratian ... ideia zaparrada egin dezaten proposatzen da. Honen ildotik galdetu: berdina esaten al da emakumez eta gizonezkoen?

2. Gogoeta elkarbanatzen da eta ondoren honako galdera egiten da: *hauetako zein zurrumuru dira egia eta zein gezurra zuen ustez?* Honen bitartez zurrumurrurik eta estereotiporik errotuenak identifikatu ahal izango ditugu.

3. Zurrumuruak identifikaturik, ondorengo galderak proposatzen dira:

- a. *Zer sentitzen duzue gauza hauek pentsatzean edo entzutean?*
- b. *Egia direla uste al duzue?*
- c. *Denak berdinak al dira?*

**Tarana Karimen bideoa ikusi ostean kontzeptuak definitzeko momentua da:**

ON

ON

## ZER DIRA ZURRUMURRUAK?

Jendearen artean zabaldurik dauden mezuak dira. Batzuetan garrantzitsuak dira, modu laburrean formulatuak eta argudioetan oinarriturik gabe.

## ETA ESTEREOTIPOAK, ZER DIRA?

Ezaugarri berdineko taldekide bati buruz izaten diren pentsamendu orokortuak dira. Baikorrak edo ezkorrak izan daitezke.

## AURREIRITZIAK ZER DIREN BA AL DAKIZU?

Talde bateko parte izateagatik pertsona bakan batekiko sentimendu negatiboa.

## ETA GUZTIEN ONDORIOAK?

Zurrumurruak, estereotipo negatiboak eta aurreiritziak ondorio negatiboa dute, xenofobia eta diskriminazioa bultzatzen dutelarik. Gizartean erlazioa eta elkarbizitza oztopatzen dute.

ERROR: ioerror  
OFFENDING COMMAND: image

STACK: